


HITZ ETA PITZ

**XABI ALONSO** (Reala)

«Ez dut inoiz jokatu anaiaren kontra partida ofizialean, eta polita izango da biontzat»

**EDU ALONSO** (Alaves)

«Etorkizun handiko jokalaria da Gurpegi, eta nire elkartasun osoa du»

**KARMONA** (Alaves)

«Orain bere errugabetasuna frogatu behar du, une honetan hitzek ez baitute asko balio»

OSASUNA. Lekunberri Levantera doa, Ochoa Mexikoko Tigresera

Lekunberrik eta Ochoak agurtu dituzte taldekideak

Osasunan tokirik ez dutela ikusita Lekunberrik eta Ochoak alde egitea erabaki dute, fitxaketetarako bost fitxa ditu aske klubak orain

Asier Legarda-ereño | IRUÑEA


Anjel Lekunberri eta Carlos Ochoa ez dira jada Osasunako jokalaria. Erdilari nafarrak zein aurrelari mexikarrak aukera gutxi izan dute Liga hasi zenean, eta Osasunarekin zuten harremana eten —hitzartutakoaren erdia soilik kobratuko dute bi jokalariek alde egiteko askatasunaren truke—, eta minutu gehiago jokatzeo aukera izan dezaketen taldeetara alde egitea erabaki dute. Lekunberrik Espainiako Bigarren Mailako Levanteren eskaintza du, eta Ochoari bere jaioterriko talde Tigresen tokia gorde diote.

Lekunberrik hirugarren denboraldia zuen hau Osasunan, eta Lotinarekin 58 partida jokatu zituen iragan bi denboraldietan, horietatik 42tan hasieratik jokatu zuelarik. Aguirrekin, ordea, gauzak erabat aldatu dira, eta iragan igandean jokatu zituen denboraldiko lehen minutuak San Mamesen —83. minutuan zelairatu zuen Aguirre—. Bere kirolari bizitza jaioterrian amai zezakeela uste zuen Compostelatik etorri zenean, baina «minuturik jokatzen ez nuela ikusita, beste aukerak aztertzen hasi nintzen, eta Levantek aukera polita eskaini dit». Horrexegatik, 2003tik 2004ra bitartean Valenziako taldean ariko da.

Ochoak, aldiz, aurrez Vidrio erkideak egin bezalaxe, bere jaioterriko klubera itzultzea erabaki du. Tigresek utzita zegoen, eta bertara itzuliko da hastear den Mexikoko txapelketan jokatzeo. «Gauzak ez dira nahi bezala irten, eta Mexikora itzuliko naiz, halere lagun asko egin dut Iruñean, eta bizipen honen alde positiboa gogoan izango dut beti» esan zuen mexikarrak.

Orain, 12, 13, 17, 18 eta 24 zenbakidun elastikoak hutsik ditu Osasunak fitxaketak egin nahi baditu ere. Eta dagoeneko baieztatu dute gorritxoek fitxaketak izango direla.

MEXIKARRAK



JESUS DIGES / EFE
Carlos Ochoa, atzo Osasunaren bulegoetan.

Mexikarren alde eginiko apustua Aguirrek soilik salba dezake

Javier Aguirreren eskutik udan Osasunara iritsi ziren bi jokalaria mexikarrek kale egin dute Espainiako Ligan. Manuel Vidriok bost partida jokatzeo aukera izan zuen. Bost aldietan hasieratik zelairatu zen gainera. Baina bere herriko selekzioan ezinbesteko titularra izatera heltzeko erakutsi dohainak ezin izan zituen erakutsi Iruñean. Deportiboren aurka gol bat ere lortu zuen Vidriok, baina orokorrean makal aritu zen. Carlos Ochoarena kasu berezia zen. Iritsi aurretik, Vidrio ez bezala, Ochoa oraindik erabat egin gabe zegoen jokalaria zela esan zuten agintari gorritxoek, eta halaxe suertatu da. Hiru partidatan 63 minutu soilik jokatu ditu Ligan, eta etxean zeuden aurrelarien maila ez zuen batera hobetu. Garbi dago Patxi Izkok bere lehen agintaldian mexikarren alde egindako apustua ez dela ongi atera, eta Javier Aguirrek soilik erantzun dio erronkari. Mementoz, taldea hamabigarren postuan du, eta bere lana nabaritzen hasi da azkenaldian. Gainera, 1986-87an jokatu hamahiru partidekin, Osasunaren elastikoa gehien jantzi duen mexikarra ere bada oraindik gorritxoaren entrenatzailea.

MOTZCAN

REALA

Schurrerek belauna bihurritu zuen atzo arratsaldeko saioan

Ordu eta berrogei minutuko lan saioa egin zuen atzo arratsaldean Realak. Bukatu baino lehen utzi behar izan zuen Gabi Schurrerek ezkerreko belauna bihurritu zuelako. Medikuek begiratu zioten, distentsio bat dauka eta litekeena da igandeko partida jokatu gabe gelditzea.

Kristian Alberdi Real Unionen arituko da

Realak utzita, denboraldia amaitu bitartean Bigarren B mailako Real Union taldean ariko da Kristian Alberdi. Alberdik 23 urte ditu, eta berez lehen taldeko jokalaria bada ere, orain artean ez du minutu bakar bat ere jokatu.

LESIONAK

Osasuna. Josetxo osatu, eta Pablo Garcia korrika egin hasia da. Palaciosek lumbalgia arazoak ditu, eta lan batzuk ez zituen egin atzo.

Alaves. Geli, Pablo eta Astudillo sasoi berreskuratzen ari dira poliki-poliki.

Athletic. Arriagak pasa du gripea. Ez dago lesionaturik.

Reala. Westerveldek gaintu du gastroenteritisa. Lopez Rekarte, berriz, arrazoi beragatik, ez zen ez goizez ez arratsaldean entrenatu.

ENTRENAMENDUAK

Osasuna. Taxoaren ariko dira gorritxoak, 10:45ean.

Athletic. 10:30ean, San Mamesen, ateak itxita.

Reala. Arratsaldeko 16:30ean Zubietan, ateak irekita direla.

Alaves. Ibaian entrenatuko dira Maneren jokalaria 11:00etatik aurrera.

PARTIDAK

Reala-Mallorca. Espainiako Ligako 14. jardunaldikoa, igandean 17:00etan (O.I.).

Alaves-At. Madril. Larunbatean, 20:30ean (O.I.).

Osasuna-Espanyol. Igandean, 17:00etan (O.I.).

Valladolid-Athletic. Igandean, 17:00etan (O.I.).

ALAVES

Pablo Gomez sartu du Manek larunbatean jokatuko duen hamaikakoan, hiru aldaketekin batera

Jon Rejado | GASTEIZ

Zunzunegi medikuak ustezko ebakuntza bati ateak ireki bazizkion ere, Pablo Gomezek abduktorean duen mina nabarmen hobetu dela ematen du. Hala nola, atzoko entrenamenduan Atletiko Madrilen kontra zelairatuko duen taldearekin lan egin zuen Manek, eta bertan erdilari gasteiztarra sartu zuen. Alaveseko bigarren taldearen kontra jokatutako partidatxoan Pablo Gomezek topera jokatu zuen; hortaz, ezusteko handirik ez badago, gasteiztarra hasierako hamaikakoan zelairatuko da larunbatean.

Pablarekin, Alaveseko entrenatzaileak euskarriari Celtaren kontra izan ez zuen jarrera bat eman nahi dio; Lotinaren taldearen kontra Turiel eta Desio zelairatu ziren, presioan lan ikusgarria eginez, baina jokoa sortzerakoan huts nabariak utziz. Gasteizko euskarriak, ordea, jokoa sortzen maila ona erakutsi izan du beti, eta horretaz baliatu nahi du Manek larunbateko partidaren baloia erabilera hobea emateko. Pablo euskarrian jartzea, ordea, ez da Alaveseko entrenatzaileak egingo duen aldaketa bakarra.

Edu Alonsok bere tokia berreskuratu du hamaikakoan

Atzoko lerroan dagoen zalan-tzarik handiena Geliren lesioa da. Sasoi ez berreskuratzeokotan, Edu Alonsok jokatuko du bere ordez eskuin hegalean, Karmona, Ablerado eta Llorensekin batera. Gironako hegalekoa jokatzeo moduan badago, ordea, Manek beste aldaketa batzuk egiteko aukera du.

Zelai erdian Cruyff itzuliko da punta erdira, eta Adrian Ilie eskuin hegalean mugituko da Martin Astudillo lesionatuaren tokia hartzeko. Ezker hegalean Ibon Begoñak hartuko du Magno Mocelinen tokia, erasoari ekiteaz gain, Cosmin Contraren barnealdiak gelditzeko. Taldearen erasoan Ruben Navarrok jokatuko du, Celtaren kontrako partidaren gertatu zen bezala. Hortaz, Manek ohiko sistemari eutsiko dio larunbateko partidari aurre egiteko.